



2024SECG0003
3.bilera: OHIKOA 2024/04/18

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 3/2024
EGUNA: 2024/04/18
HASIERA ORDUA: 17:00
AMAIERA ORDUA: :17:15
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.
Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko martxoaren 21ean eginiko bileraren akta aurkeztu zen.

Aktaren 3. puntuan, «Tokiko Gobernu Batzarraren zereginak.» eskumen hauek Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzeko eskumenen proposamenaren harira, galdetu zen ea zeintzuk diren 5 zenbakiarekin jasotzen diren Alkatetzak behin betikoz onar ditzakeen hirigintza-plangintzako tresnak.

Idazkariak erantzuna eman ondoren, bertaratutakoek, aho batez, akta onartu zuten.

2.- Etxebizitzaren alokairurako dirulaguntzen oinarriak onartzea, hala badagokio.

Debako herrian etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko oinarriak aurkeztu ziren, baita Gizarte Politika eta Berdintasun Batzordeak, 2024ko martxoaren 14an egindako ohiko bileran horren harira emandako irizpena ere.

Alkateak egin nahi diren aldaketa nagusiak azaldu zituen, eta idazkariak, hainbat puntuen buruzko azalpenak eman zituen, hala nola, familia unitate eta bizikidetza unitateen arteko desberdintasunak, eguneratzen diren gehieneko diru sarrerak, eta abar.

Gaia aztertu ondoren, bertaratutakoek, aho batez, Debako herrian etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko oinarriak onartzearen aldeko irizpena eman zuten, eta osoko bilkurari helaraztea proposatu zen, hark onar dezan.

3.- Eskari eta galderak.

Ez ziren egon.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 17:15ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Alazne Txurruka Aliko
Alkatea

